

Kutxabankek bat egin du 2022/2023 'Funcas Educa' programarekin

- Gregorio Villalabeitiak, finantza-erakundeko presidenteak adierazi du “lankidetzako oso garrantzitsua da, ‘Bizitzarako Finantzak’ programaren kasuan, oinarrizko finantza-nozioak irakatsi baitizkie 13 eta 17 urte bitarteko 15.000 ikasleri baino gehiagori”.
- Funcaseko zuzendari nagusia den Carlos Ocañaren ustez, “helburua da herritarrek finantza-erabakiak hartzeko eta beren dirua kudeatzeko duten gaitasuna hobetzea, bereziki bitarteko digitaletan”.

Madril, 2022ko ekainaren 20an.- CECAn Banku eta Kutxen Fundazioak (Funcas) eta Kutxabankek hitzarmena sinatu dute, eta horren bidez finantza-erakundeak bat egiten du 2022/2023 ikasturterako “Finantza Hezkuntza Sustatzeko Funcas Programa”rekin (Funcas Educa programa). Akordioa Kutxabankek presidenteak, Gregorio Villalabeitiak, eta Funcaseko zuzendari nagusiak, Carlos Ocaña berretsi dute, eta jarraipena emango dio finantza-kultura areagotze aldera jarduerak bultzatzeko helburuarekin bi erakundeek 2018tik daukaten lankidetzari.

Gregorio Villalabeitiak, finantza-erakundeko presidenteak lankidetzako horri eustearen garrantzia azpimarratu du, “Kutxabanken kasuan, helduarorako beharrezkoak diren finantza-nozioak 13 eta 17 urte bitarteko 15.000 ikasleri baino gehiagori helaraztea ahalbidetu baitu”.

Funcaseko zuzendari nagusia den Carlos Ocañaren ustez, “helburua herritarren gaitasuna hobetzea da, finantza-erabaki egokiak har ditzaten eta dirua modurik praktikoen eta seguruenean kudea dezaten, bereziki bitarteko digital berrien bidez”.

2022ko deialdia CECAn atxikitako erakundeekin egindako lankidetzako programa honen laugarrena da, espainiarren finantza-hezkuntzaren maila eta kalitatea hobetzen laguntzen duten proiektuak finantzatzera bideratua. Erakundeak beren gizarte-lana indartzen duten finantza-hezkuntzako ekintzak garatzen ari dira, eta azken bi urteotan pandemiak baldintzatu dituen jendearen beharretara egokitu edo moldatzen dira. Finantza-zerbitzu telematikoen gero eta erabilera handiagoa, finantza-inklusioa sustatu beharra kolektibo ahulenei kanal horietarako sarbidea erraztuz, edo kriptoa aktiboetan inbertsioa gehitu izana dira, besteak beste, gure ohiturak eta finantzekin dugun harremana aldatu duten eta finantza-erabakiak hobetzea eskatzen duten joeretako batzuk.

Kutxabanken 'Bizitzarako Finantzak' programak zazpi edizio egin ditu dagoeneko DBHko 3. eta 4. mailako eta Oinarrizko Lanbide Heziketako 1. mailako ikasleen artean, bai Euskal Autonomia Erkidegoan, bai Kordoban, Cajasur Fundazioaren bitartez. Esperientzia finkatua da eta oso modu positiboan balioesten dute irakasleek eta ikasleek, hezkuntza eta ikaskuntza-tresna oso eraginkortzat hartzen baitute. Horren erakusgarri da parte hartzen duten ikastetxeen % 100ek urtero adierazten dutela hurrengo ikasturtean jarduera errepikatzeko borondatea.

'Bizitzarako Finantzak' programa simulazio-joko parte-hartzailea da, ikasleei eta irakasleei finantza-gaitasun eta trebetasunak lantzeko aukera ematen diena.

Funcasek eta CECaK 2018tik aurrera 'Finantza Hezkuntza Sustatzeko Funcas Programa' abian jartzea adostu zuten, CECaRi atxikitako erakundeek garatzen dituzten finantza-hezkuntzako jarduerak finantzatzen laguntzeko, bai zuzenean, bai beren fundazio lotetsien bidez, lehendik zeuden proiektuak sendotuz eta berriak bultzatuz.

NOTA DE PRENSA